

6,4 milioi euro inbertitu ditu horretarako 2016an

EROSKI-K BELAUNALDI BERRIKO 23 HIPERMERKATU GEHIAGO DITU

- **Aurten zazpi hipermerkatu berrituta, 74 lanpostu sortu dira**
- **Langileek 30.200 prestakuntza ordu jaso dituzte, bezeroari arreta pertsonalagoa emateko eta taldeen autogestioa lantzeko**
- **Belaunaldi berriko hipermerkatu hauen salmentetatik janari freskoak dira %25 baino gehiago eta beren salmentek bi digituko hazkundeak izan dituzte Zurekin eredu komertzialari eskerrak**
- **Salmentak %7 igo dira belaunaldi berriko EROSKIren dendetan**

Elorrio, 2016ko irailaren 5a.- [EROSKI](#)k 6,4 milioi euro inbertitu ditu aurten, zazpi hipermerkatu denda-belaunaldi berrira eraldatzeko Zurekin eredu komertzialaren arabera. Kontsumitzailearen gogo berriak direla eta, sare komertziala berregituratzen ari da eredu horretara. Aurten hipermerkatuetan egindako berrikuntzekin, 74 lanpostu sortu dira.

Kooperatiba, hala, ari da betetzen belaunaldi berriko denden hedapen plana. Horrelako dendek aukera askatasun handiagoa ematen diote kontsumitzaileari, eta freskoetan espezializatuagoak daude. Gainera, atek irekitzen dizkiete ingurune hurbilean ekoizten diren produktuei, eta bezeroarekin harreman pertsonalagoa ezartzen dute. Aurten egindako berritzeekin, EROSKI dagoeneko belaunaldi berriko 23 hipermerkatu ditu.

Hona non diren 2016an eraldatutako hipermerkatuak: Bizkaian (Zalla eta Txurdinaga), Gipuzkoan (Ordizia, Eibar, Urbil eta Urola) eta Galizian (Noia). Aurreko urteetan eraldatuak, berriz, hona: Araban (Boulevard), Bizkaian (Abadiño, Artea, Ballonti, Berango, Bilbono, Gernika eta Leioa), Kantabrian (Castro Urdiales), Gipuzkoan (Zarautz, Garbera, Tolosa eta Arrasate), Nafarroan (Iruñea eta Tutera) eta Tarragona; Tarragonako hori, gainera, EROSKIren frankizia erako lehen hipermerkatua da.

258 lanposturen sorrera

Hipermerkatuak eraldatzeko, 23 milioi euro inbertitu dira, eta, guztira, 258 lanpostu sortu. Denetara, 3.316 pertsona dira hipermerkatu berrituetan lanean dihardutenak, eta 30.200 prestakuntza ordu jaso dituzte, bezeroei arreta pertsonalagoa emateko eta taldeen autogestioa lantzeko; hala, bezeroen gogora eta lehiakortasunaren testuingurura egokitzea da asmoa. *"Bezeroei arreta pertsonalagoa ematen dielako bereizten da Zurekin eredu; horregatik, baliabide eta ordu asko ematen ari gara gure barne kultura kooperatiboa indartzeko eta bezero-bazkidea gure jardueraren erdigunea izateko"*, esan du EROSKI Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Arreta pertsonal hori gehienbat harategian, arraindegian eta urdaitegian ezagutzen da, mahai berriak jarri baitira salmenta lagundurako, eta orobat ezagutzen da EROSKI Klub programan, pixkanaka garatzen joan ahala gaitasun handiagoa hartzen ari baita eskaintzak eta sustapenak bezero-bazkideen gogora egokitzeko. Denera jota, EROSKI Taldeak zazpi milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta Eroski, Caprabo, iF eta Forum Sport txartelak erabiltzen dituzte.

Freskoetan espezializatutako dendak

Belaunaldi berriko EROSKI dendak freskoetan espezializatuago daude; salgai kopurua igo dute, eta janari horietako asko tokikoak eta sasoikoak dira, batez ere frutak, barazkiak eta arraina.

"Tokiko ekoizleek garrantzi handiagoa hartu dute Zurekin ereduarekin, zeren eta gure dendak eskualdean ekoizitako elikagaiak merkaturatzeko plataforma irekiak dira, eta, hala, nekazaritzako elikagaien sektore iraunkorragoa eta aniztasun handiagokoa bultzatzen dugu. 2015ean, 680 erreferentzia berri jarri ditugu, eta guztira, 21.064 elikagai eskaintzen ditugu, gure dendetako ingurunerik hurbilenean ekoiztiak", esan du EROSKIren Sare Komertzialeko zuzendari nagusiak, Rosa Carabelek.

Zurekin dendako freskoen proposamena aldakorragoa da orain, tokian tokiko eta sasoiko ekoizpenekin bat egiten baitu. Atal horiek hipermerkatuen salmenten %25 dira, eta hazkundera (bi digitukoa) nabarmena izaten ari da Zurekin ereduaren berrikuntzak ezarritik. Salmentak, denetara, %7 igo dira belaunaldi berriko EROSKI dendetan.

Produktu dietetiko eta biologikoetarako eremuak ere handitu egin dira; hala, atal berriak jarri dira, elikagai osasungarriago baterako joera berri guztiak biltzeko. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat egongo da, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gatz gutxi jan behar dutenentzat.

Osasunaren aldeko konpromiso horretaz gainera, lurrindegia-parafarmaziaren atal berriak ere lehen baino toki handiagoa hartuko du, eta prestakuntza berezia duen pertsona bat egongo da bezeroari zainketa pertsonalerako arreta osoa eskaintzeko.

Era berean, saltokiak eredu komertzial berrira aldatzean, sorta zabaltzen da; batik bat, olioetan eta pastetan, txokolateetan, kafeetan, teetan eta zainketa pertsonalerako produktuetan. Horrela, kontsumitzaileen aukera askatasuna handitzen da, eta bezeroen gogoia betetzeko modu berriak eskaintzen dira.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)